# EuskalAE Input-Ouputtaulak

## Emaitzen analisia

# Tablas Input-Ouput de la C.A. de Euskadi

## Análisis de resultados

Eustat

90-95

## 1. INTRODUCCIÓN

LA ECONOMÍA VASCA DESACELERÓ SU CRECIMIENTO EN EL PERÍODO 1990-1995 A UNA TASA ANUAL DE 1,8%, DESPUES DE UNA TASA DEL +4,7% DEL QUINQUENIO ANTERIOR.

La evolución de la economía vasca en el periodo 1990-1995 presenta una contracción de los grandes agregados económicos respecto al quinquenio anterior, provocada por la crisis que sufrió la economía internacional en este período, y que tuvo su máxima expresión en el año 1993, momento a partir del cual se experimenta un repunte de la situación que puso a la economía nuevamente en la senda ascendente del ciclo económico.

El aspecto más negativo del periodo ha sido la destrucción de puestos de trabajo que llevó implícita la recesión sufrida, y que unido a los otros factores demográficos de paro estructural existente, supuso alcanzar tasas de paro del 23,8%, superando las tasas más altas de la crisis de los años ochenta.

El menor ritmo de crecimiento que mantuvo la economía vasca en este periodo se plasma en el aumento de la tasa anual acumulativa en términos constantes de 1,8%, muy inferior al 4,7% observado en segunda parte de los años 80, siendo los factores que contribuyeron a la expansión económica de signo contrario a los que actuaron en el período anterior. Frente a la debilidad de la Demanda Interna, causada por el comportamiento del Consumo Privado que se contrajo fuertemente a raíz de la situación de paro existente, y de la Inversión, que aunque recuperada en los últimos años del quinquenio tocó fondo en 1993, se encuentra la contribución altamente positiva del Sector Exterior en el mercado extranjero, que consiguió un saldo superavitario de 186.109 millones de pesetas superando totalmente la contracción sufrida en los años inmediatamente posteriores a la integración en la Unión Europea. El aprovechamiento de las políticas devaluatorias de la peseta y complementadas con la recuperación de los mercados de destino en el extranjero, más atractivos para las exportaciones, afectaron a los intercambios con el Resto del Estado que se redujeron para ese periodo, concluyendo el período con un déficit de 124.325 millones de pesetas.

Otra cuestión de interés en este periodo, es nuevamente la pérdida de peso del factor trabajo en la distribución del excedente en favor del factor capital, motivado por la pérdida de empleos acumulados en el periodo, la moderación salarial, así como por el crecimiento de los precios

## 1. SARRERA

1990-1995 ALDIAN, MOTELDU EGIN DA EAE-KO EKONOMIAREN HAZKUNDEA, ETA URTEKO TASA % 1,8KOA IZAN DA; AURREKO BOSTURTEKOAN, BERRIZ, TASA HORI % +4,7KOA IZAN ZEN.

Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomiak 1990-1995 aldian izan duen bilakaera aztertzen badugu, ikusiko dugu ekonomiako aldagai nagusiak uzkurtu egin direla, aurreko bosturtekoaren aldean; izan ere, aldi horretan, krisialdi bat jasan zuen nazioarteko ekonomiak, eta krisialdi horren kinka larriena 1993 urtean izan zen; urte horretatik aurrera, egoera bere onera etorri zen, eta ekonomia, berriro ere, ekonomi zikloaren goranzko bidera itzuli zen.

Aldi horretako alderik txarrena zera izan da: jasandako makalaldiaren eraginez, lanpostu asko galdu direla. Demografi arloko beste osagai batzuekin batera (besteak beste, dagoen egiturazko langabezia), langabezi tasa % 23,8ra iritsi zen; beraz, tasa hori laurogeiko hamarkadako tasa altuen gainetik egon da.

Hortaz, EAEko ekonomia motelago hazi da, aldi horretan; horren eraginez, urteko tasa pilatuaren igoera (kopuru finkoetan) % 1,8koa izan da, hau da, 80ko hamarkadako bigarren zatian izandakoa (% 4,7) baino askoz txikiagoa. Ekonomi hazkunde hori eragin zuten osagaiak ere kontrakoak izan dira: alde batetik, barne eskariaren (kontsumo pribatuaren portaerak eragina, langabezi egoeraren eraginez asko uzkurtu baita) eta inbertsioaren (nahiz eta bosturtekoko azken urteetan zuzpertu den, hondoa jo zuen 1993an) makalaldia, eta, bestetik, kanposektoreak atzerriko merkatuan izan duen ekarpen guztiz positiboa (186.109 milioi pezetako superabit-saldoa lortu du, Europako Batasunean sartu ondorengo lehen urteetan jasandako uzkurraldia erabat gaindituz) Pezetaren balio-gabetze politikak erabiliz eta atzerriko merkatuak berreskuratuz, merkatu horiek erakargarriago bihurtu dira gure produktuentzat; estatuaren enparaturako elkartrukeak, aldiz, gutxitu egin dira aldi horretan, eta aldiaren amaieran, defizita 124.325 milioi pezetakoa izan da.

Hona hemen aldi horretako beste gai interesgarri bat: berriro ere, lan-faktoreak pisua galdu du soberakinaren banaketan, kapital-faktorearen mesedetan, zeren aldi horretan hainbat lanpostu galdu baitira, soldatak egonkortu egin baitira, eta industri prezioak gehitu egin baitira (ho-

industriales que han propiciado una mayor participación del excedente empresarial en la renta.

En lo correspondiente al nivel de los precios durante el quinquenio, se pueden destacar dos aspectos: el primero, la mayor contención en la evolución de los precios al consumo respecto al período anterior, aunque todavía muy lejos de los condicionamientos marcados en Maastricht, y por tanto del nivel medio de precios de la Unión Europea. Dicho comportamiento se ha visto favorecido por el descenso de los precios energéticos, la moderación en los costes salariales y la reconducción de los tipos de interés; y el segundo, el repunte observado por los precios industriales, tanto interiores como de importación, sobre todo en la segunda parte del quinquenio, una vez conseguido un tipo de cambio efectivo más favorable ante la competencia exterior y con la finalidad de recuperar los excedentes empresariales tras unos años de operar con márgenes reducidos.

rren eraginez, enpresaburuek parte-hartze handiagoa izan dute errentan).

Prezioek bosturtekoan izan duten mailari dagokionez, bi alde nabarmendu daitezke: lehenik, kontsumorako prezioak, aurreko aldian ez bezala, ez dira hainbeste igo; dena dela, oraindik ez dira iritsi Maastricht-en ezarritako irizpideak, ez eta Europako Batasuneko prezioen batez besteko maila. Portaera horretan, eragin mesedegarria izan du energi prezioak jaisteak, soldata-kostuak ez igotzeak, eta interes-tasak berbideratzeak; bigarrena, berriz, industri prezioek izan duten igoera (barnekoek zein inportaziokoek), batez ere, bosturtekoko bigarren zatian, behin kanpoko konkurrentziaren aurrean egiazko truke-tasa aldekoago bat lortuz gero eta enpresaburuen soberakinak berreskuratzeko asmoz, urte batzuetan marjina txikiekin jardun ondoren.

## 2. POBLACIÓN OCUPADA: DISTRIBUCIÓN SECTORIAL

SE QUIEBRA LA TENDENCIA POSITIVA DE LA POBLACIÓN OCUPADA, ALCANZANDO UNA TASA DE PARO DEL 23,8%.

Una de las repercusiones más negativas de la crisis sufrida en el año 1993 recayó en el empleo, al quebrarse la tendencia positiva que se venía observando desde 1987, como consecuencia del ciclo económico ascendente que atravesaba la economía vasca. El número de desempleados que se alcanzó en la C.A. de Euskadi durante este período es de 223.000, lo que supone una tasa de paro de 23,8%, superior a la registrada en el Estado (22,9%) y ambas muy lejos de la media europea que se mantenía en torno al 10,7%.

## 2. LANDUN-KOPURUA: SEKTOREKAKO BANAKETA

HAUTSI EGIN DA LANDUN-KOPURUAREN JOERA POSITIBOA, ETA LANGABEZI TASA % 23,8RA IRITSI DA.

1993an jasan zen krisiaren eraginik kaltegarrienetako bat enpleguak jasan zuen, zeren 1987tik zetorren joera positiboa hautsi baitzen; joera positibo hori EAEko ekonomia igarotzen ari zen goranzko ekonomi zikloaren ondorio zen. Aldi horretan, Euskal AEn, langabe-kopurua 223.000koa izan da, eta langabezi tasa % 23,8koa izan zen, hau da, estatukoa (%22,9) baino handiagoa, eta biak oso urrun Europako batez bestekotik (% 10,7ren ingurukoa).

**1. GRAFIKOA: LANGABEZI TASA. EUSKAL AE, ESTATUA ETA EUROPAKO BATASUNA (%)**
GRAFICO 1: TASA DE PARO. C. A. DE EUSKADI, ESTADO Y UNIÓN EUROPEA (%)




**Iturria: EUSTAT. INE. EUROSTAT.**
Fuente: EUSTAT. INE. EUROSTAT.

La población ocupada se muestra como la variable macroeconómica más vulnerable ante los cambios del ciclo económico, y la de menor capacidad de reacción una vez superada la fase descendente de la economía. Esto se apreció en la recuperación económica de la segunda mitad del quinquenio donde la mejora en las cifras del empleo no se dejó sentir hasta 1995, segundo año de la reactivación de la economía. Colaboraron en este sentido, además del crecimiento económico, la moderación salarial de los dos últimos años, la finalización del reajuste de las plantillas y la reforma laboral llevada a cabo.

Para la explicación a las altas tasas de desempleo que muestra la economía vasca, además de la evolución económica del periodo, hay que mirar a la existencia de otro factor estructural de tipo demográfico que sigue incidiendo, al igual que en el periodo anterior, como es, el importante aumento en la población activa (6%). Las causas de este aumento hay que buscarlas en los altos índices de natalidad de principios de los años setenta, así como, a la continua incorporación de la mujer en el mercado laboral, que aumenta en más de cuatro puntos porcentuales.

Este aumento del desempleo afecta a los saldos migratorios de signo negativo que vuelven a repetirse durante este período, y que contribuyen junto a los crecimientos vegetativos negativos, como consecuencia de las bajas tasas de natalidad, a un descenso de la población total de la C.A. de Euskadi de 6.287 habitantes, que por Territorios Históricos afecta principalmente a Bizkaia, al disminuir en 15.766 habitantes, ya que Gipuzkoa y Alava registran aumentos de población, 1.905 y 7.574 habitantes respectivamente.

Landun-kopurua da, hain zuzen, ekonomi zikloaren eraginik handienak jasaten dituen aldagai makroekonomikoa, eta, ekonomiaren beheranzko aldia gainditu ondoren, erreakzio-ahalmen txikiena duena. Hori argi eta garbi ikusi zen bosturtekoko bigarren zatiko ekonomi zuzperraldian, enpleguaren kopuruak ez baitziren hobetzen hasi 1995a arte, ekonomi zuzperraldiaren bigarren urtea arte, hain zuzen. Horretan lagundu zuten, ekonomi hazkundeaz gain, beste osagai batzuek ere: azken urteotan soldatak egonkortu izanak, langile-taldeen gutxitzea amaitu izanak, eta egindako lan-erreformak.

EAEko ekonomiak erakusten dituen langabezi tasa altu horiek azaltzeko, aldi horretako ekonomi bilakaeraz gain, kontuan izan behar da egiturazko beste osagai bat ere badagoela, eta demografi arloko osagai horrek, aurreko aldian bezala, eragin handia duela, eta zera da: biztanle aktiboak asko igo direla (% 6). Igoera horren arrazoiak hirurogeita hamarreko hamarkadako jaiotza-tasa altuetan bilatu behar dira, bai eta beste arrazoi honetan ere: emakumezkoak gero eta gehiago ari dira sartzen lan-merkatuan, eta ehuneko lau puntutik gorako igoera izan dute.

Langabeziaren igoera horrek eragina izan du migrazio-saldoetan, zeren saldo horiek, berriro ere, negatiboak izan baitira aldi osoan. Berezko hazkundeak ere negatiboak izan dira. Horren guztiaren ondorioz, jaiotza-tasak oso baxuak izan dira, eta Euskal AEko guztizko biztanle-kopurua jaitsi egin da (-6.287 biztanle). Jaitsiera hori, batez ere, Bizkaian gertatu da, lurralde horretako biztanle-kopurua 15.766 jaitsi baita; Gipuzkoan eta Araban, aldiz, biztanle-kopuruak gora egin du (1.905 eta 7.574, hurrenez hurren).

**1. TAULA: BIZTANLERIAREN ETA BERE JARDUERAREN BILAKAERA 1990-1995 ALDIAN. EUSKAL AE (milatan)**
TABLA 1: EVOLUCIÓN DE LA POBLACIÓN Y SU ACTIVIDAD EN EL PERIODO 1990-1995. C.A. DE EUSKADI (en miles )

| | 1990 (1) | 1995 (2) | Δ % | (2)-(1) |
|---|---|---|---|---|
| **Guztizko biztanleria (biztanle-kop.)** Población Total (N.º habitantes) | **2.104.041** | **2.097.754** | **-0,30** | **-6.287** |
| **Araba** / Álava | 272.447 | 280.021 | 2,78 | 7.574 |
| **Bizkaia** | 1.155.106 | 1.139.340 | -1,36 | -15.766 |
| **Gipuzkoa** | 676.488 | 678.393 | 0,28 | 1.905 |
| **16 urte edo gehiagoko biztanleak (milaka)** Población de 16 o más años (en miles) | 1.701,3 | 1.775,8 | 4,38 | 74,5 |
| **Biztanle aktiboak** / Población Activa | 882,9 | 935,6 | 5,97 | 52,7 |
| **Biztanle langabeak** / Población Parada | 143,2 | 223,0 | 55,73 | 79,8 |
| **Biztanle landunak** / Población Ocupada | 739,8 | 712,7 | -3,66 | -27,1 |
| **Langabezi tasa %** / Tasa de paro % | 16,2 | 23,8 | 46,91 | 7,6 |
| **Biztanleriaren jarduera-tasa %** Tasa de Actividad de población % | 51,9 | 52,7 | 1,54 | 0,8 |
| **Gizonezkoak** / Hombres | 67,6 | 64,7 | -4,29 | -2,9 |
| **Emakumezkoak** / Mujeres | 36,8 | 41,2 | 11,96 | 4,4 |

**Iturria: EUSTAT. Biztanleria Jarduerearen Arabera**
Fuente: EUSTAT. Población en Relación a la Actividad

En relación a la Población Ocupada se registra una destrucción neta de 27.000 puestos de trabajo durante el quinquenio de estudio, casi el 30% de los generados en el periodo expansivo 1985-1990. Al igual que en este último, continúa el trasvase de empleos (12.802) de los sectores Primario e Industrial hacia la Construcción y los Servicios.

Landun-kopuruari dagokionez, aztergai dugun bosturtekoan, guztira, 27.000 lanpostu galdu dira, aurreko goranzko aldian (1985-1990) sortu ziren lanpostuen % 30. Azken aldi horretan bezala, lanpostu asko ari dira igarotzen (12.802) lehen sektoretik eta industriatik eraikuntzara eta zerbitzuetara.

La pérdida de empleos que venía manteniendo el sector Industrial, como consecuencia de su adaptación a mercados europeos más competitivos, así como de los últimos ajustes de plantillas, correspondientes a los procesos de reconversión puestas en marcha en la década pasada, se ha visto acentuada por los menores ritmos productivos de este periodo. Los sectores industriales más afectados son la Metalurgia y artículos metálicos, con una pérdida de 12.749 empleos, y el sector de Maquinaria con 6.682 empleos menos. El sector de la Construcción, sin repetir la creación de puestos de trabajo que generó en la etapa anterior, consigue aumentar en algo menos de un millar sus efectivos.

Por último, el sector Servicios, con la creación de 11.892 puestos de trabajos, y salvando las distancias con los 100.000 empleos conseguidas en el periodo anterior, es el que ha permitido atemperar la pérdida de población ocupada, debido a la propia naturaleza del sector, donde la expansión del mismo se relaciona directamente con una mayor utilización del factor trabajo. Al igual que en el período 1985-1990, el mayor número de puestos de trabajo lo ha generado el sector Servicios a empresas (13.257), siendo éste uno de los que más se beneficia del proceso de externalización que experimenta la economía, así como de la revolución informática que se está llevando a cabo desde 1988. En contraposición, el Comercio pierde 5.470 empleos de los 16.683 generados en el periodo anterior.

Industri sektorean, enplegu asko galdu dira, azken urteetan, zeren Europako merkatuetara, merkatu lehiakorragoetara, egokitu behar izan baitu; era berean, azken hamarkadetan birmoldatze-prozesu batzuk martxan jarri direnez, langile-taldeak murriztu egin behar izan dira. Enplegu-galera hori, gainera, handiagoa izan da, aldi horretan moteldu egin baitira produkzio-erritmoak. Hona hemen zein sektoretan galdu den enplegu gehien: metalgintza eta metalezko artikuluak (12.749 enplegu gutxiago), eta makineria (6.682 enplegu gutxiago). Eraikuntza-sektorean, aldiz, igo egin da langile-kopurua (milatik behera); nolanahi ere, sektore horretan, ez da aurreko aldian bezain beste lanpostu sortu.

Zerbitzu-sektorean, azkenik, 11.892 lanpostu sortu dira. Nahiz eta ez den sortu aurreko aldian bezain beste enplegu (100.000), sektore horri esker berdindu da zertxobait landun-kopuruaren galera; izan ere, sektore horren hazkundeak lotura handia du lan-faktorearekin: zenbat eta langile gehiago erabili, orduan eta handiagoa da hazkundea. 1985-1990 aldian bezala, lanpostu gehien enpresentzako zerbitzuak sektoreak sortu du (13.257), eta sektore horrek atera du onura gehien ekonomiaren esternalizazio-prozesutik, eta 1998tik burutzen ari den informatika-iraultzatik. Merkataritzak, aldiz, 5.470 enplegu galdu ditu, nahiz eta aurreko aldian 16.683 lanpostu sortu zituen.

**2. GRAFIKOA: SEKTOREAK, ENPLEGU-SORRERA GARBI HANDIENEKOTIK TXIKIENEKOERA. 1990-1995. EUSKAL AE**

GRAFICO 2: SECTORES DE MENOR A MAYOR CREACIÓN NETA DE EMPLEO. 1990-1995. C. A. DE EUSKADI



## 3. EVOLUCIÓN DE LOS PRINCIPALES INDICADORES DE LA ECONOMÍA VASCA

LA DEMANDA INTERNA PRINCIPAL RESPONSABLE DEL MENOR CRECIMIENTO DEL PIB.

El disponer de unas Tablas Input-Output nos permite estudiar bajo tres puntos de vista (oferta, demanda y rentas) la estructura de una economía, así como analizar el comportamiento seguido por la misma en los dos grandes períodos de los últimos diez años.

La riqueza acumulada en el periodo 1990-1995 en términos nominales, representada por el Producto Interior Bruto (PIB) y medido por la tasa acumulativa anual, ha crecido un 6,3%, que se reduce al 1,8% en términos reales, lo que supone la aplicación de un deflactor para el periodo del 24%, inferior al aplicado en el período 1985-1990

## 3. EAE-KO EKONOMIAREN ADIERAZLE NAGUSIEN BILAKAERA

BARNE-ESKARIA IZAN DA BPG-AREN HAZKUNDE TXIKIAGOAREN ERAGILE NAGUSIA.

Input-output taula batzuk edukitzeak aukera ematen digu ekonomia baten egitura hiru ikuspuntutatik aztertzeko (eskaintza, eskaria eta errentak), bai eta ekonomia horrek azken hamar urteetako bi aldi nagusietan izandako portaera aztertzeko ere.

1990-1995 aldian, % 6,3 hazi da aberastasun pilatua, kopuru nominaletan. Aberastasun hori Barne Produktu Gordinak (BPGak) irudikatzen du, eta urteko tasa pilatuaren bidez neurtzen da. Benetako kopuruetan, tasa hori % 1,8ra jaisten da, zeren % 24ko deflaktore bat aplikatu behar baita aldi horretan; deflaktore hori, dena dela, 1985-

**2. TAULA: MAKROMAGNITUDE NAGUSIEN BILAKAERA, BALDINTZA KONSTANTEETAN (pezetak 1995)**
TABLA 2: EVOLUCIÓN DE LAS PRINCIPALES MACROMAGNITUDES EN TÉRMINOS CONSTANTES (Pesetas 1995)

| **Unitatea: milioi PTA** / Unidad: millones de Ptas. | 1990 | 1995 | **Aldiko aldakuntza %** / Variación periodo % | **Urteko tasa pilatua %** / Tasa anual acumulativa % |
|---|---|---|---|---|
| **Landun-kopurua** / Personal Ocupado (*) | 734.344 | 706.943 | -3,73 | -0,76 |
| 1. **BPG fin** / PIB asf | 4.131.526 | 4.523.056 | 9,48 | 1,83 |
| 1.1. **BEG fin** / V.A.B. asf | 3.838.804 | 4.206.937 | 9,59 | 1,85 |
| 1.1.1. **Nekazaritza** / Agricultura | 63.987 | 66.079 | 3,27 | 0,65 |
| 1.1.2. **Industria** / Industria | 1.363.910 | 1.517.418 | 11,25 | 2,16 |
| 1.1.3. **Eraikuntza** / Construcción | 268.276 | 308.344 | 14,94 | 2,82 |
| 1.1.4. **Zerbitzuak** / Servicios | 2.142.631 | 2.315.096 | 8,05 | 1,56 |
| 1.2. **Inportazioari loturako zergak** Impuestos ligados a la importación | 15.098 | 10.117 | -32,99 | -7,69 |
| 1.2. **Produktuak zamapetzen dituen BEZa** IVA que grava los productos | 277.624 | 306.002 | 10,22 | 1,97 |
| 2. **Azken barne-kontsumoa** / Consumo Final Interior | 3.241.261 | 3.449.880 | 6,44 | 1,26 |
| 2.1. **Kontsumo Pribatua** / Consumo Privado | 2.745.983 | 2.892.043 | 5,32 | 1,04 |
| 2.2. **Kontsumo Publikoa** / Consumo Público | 495.278 | 557.837 | 12,63 | 2,41 |
| 3. **Kapital-eraketa gordina** / Formación Bruta de Capital | 902.906 | 1.021.392 | 13,12 | 2,50 |
| 3.1. **Kapital finkoaren eraketa gordina** Formación Bruta de Capital Fijo | 886.057 | 951.722 | 7,41 | 1,44 |
| 3.2 **Izakinen aldakuntza** / Variación de Existencias | 16.849 | 69.670 | 313,50 | 32,83 |
| 4. **Azken barne-eskaria** / Demanda final interna (2+3) | 4.144.167 | 4.471.272 | 7,89 | 1,53 |
| 5. **Esportazioak** / Exportaciones | 2.628.857 | 2.799.067 | 6,47 | 1,26 |
| 5.1. **Estatuaren enparatura** / Al resto del Estado | 1.879.771 | 1.656.568 | -11,87 | -2,50 |
| 5.2. **Atzerrira** / Al extranjero | 749.086 | 1.142.499 | 52,52 | 8,81 |
| 6. **Inportazioak** / Importaciones | 2.641.498 | 2.747.283 | 4,00 | 0,79 |
| 6.1. **Estatuaren enparatutik** / Del resto del Estado | 1.887.606 | 1.790.893 | -5,12 | -1,05 |
| 6.2. **Atzerretik** / Del extranjero | 753.892 | 956.390 | 26,86 | 4,87 |
| 7. **Kanpo-saldoa** / Saldo exterior | -12.641 | 51.784 | – | – |
| 7.1. **Estatuaren enparatura** / Resto del Estado | -7.835 | -134.325 | – | – |
| 7.2. **Atzerrira** / Extranjero | -4.806 | 186.109 | – | – |

**(*) Landun-kopurua, 1995eko ekonomi kontuetan eta imput-output tauletan oinarrituz kalkulatua. Unitate estatistikoa establezimenduak dira, BJAn oinarritutako landun-kopruruan ez bezala, hor familia baita unitate estatistika.**
Número de personas ocupadas, calculado en base a las Cuentas Económicas y Tablas Input-Output 1995, donde la unidad estadística son los establecimientos, a diferencia de la Población Ocupada fuente PRA donde la unidad estadística es la familia.

(43%) sobre todo debido a la moderación experimentada por los precios al consumo.

1990 aldian aplikatu zena baino txikiagoa da (% 43), batez ere, kontsumorako prezioak neurritsuagoak izan direlako.

La desaceleración sufrida por el PIB se ha hecho manifiesta en todos los componentes de la Demanda Interna, de forma especial en el Consumo Privado que creció con una tasa anual acumulativa de 1,3% y que se vio afectada por la reducción de las rentas familiares, debido a las altas tasas de paro existentes.

BPGak jasan duen moteltzea barne-eskariaren osagai guztietan nabarmendu da, batez ere, kontsumo pribatuan. Aldagai hori % 1,3ko urteko tasa pilatu bateraino hazi da; hazkunde txiki horretan, eragina izan du famili errentak jaitsi izanak, zeren langabezi tasak oso altuak izan baitira.

La recuperación del Consumo Privado no se ha hecho efectiva al final del quinquenio, a pesar de la mejora de los indicadores económicos, cerrando el período con una tasa de crecimiento real de tan sólo 0,7%.

Kontsumo pribatuaren zuzpertzea ez da gauzatu bosturtekoaren amaieran, nahiz eta ekonomi adierazleak hobetu egin diren, eta, aldiaren amaieran, aldagai horren benetako hazkunde-tasa % 0,7koa izan da.

El Consumo Público, a pesar de resentirse de los efectos de una política de reducción en el Gasto Público a partir de 1992, es el componente de la Demanda Interna que mayor expansión consigue en este periodo, exceptuando la Variación de Existencias al crecer a una tasa acumulada anual de 2,4%.

Barne-eskariaren osagaien artean, kontsumo publikoa hazi da gehien, izakinen aldakuntza alde batera utzita, eta urteko tasa pilatua % 2,4koa izan da; beraz, nahiz eta 1992tik gutxitu egin zen gastu publikoa, politika horrek ez du eragin handiegirik izan.

La Formación Bruta de Capital, con un crecimiento en tasa real anual acumulativa del 2,5%, ha sufrido de igual forma en los años 1992 y 1993 la falta de expectativas empresariales, logrando salir finalmente de esa crisis vigorosamente, ya que el último año del período creció a una tasa real del 16,5%.

Kapital-eraketa gordinak % 2,5eko hazkundea izan du, urteko tasa pilatuari dagokionez; aldagai horrek behera egin zuen 1992 eta 1993 urteetan, enpresaburuen itxaropenak ez zirelako oso onak; azkenean, dena dela, indartsu irten da krisi horretatik, zeren, aldi horretako azken urtean, % 16,5eko benetako tasaraino hazi baitzen.

La debilidad en el comportamiento de la Demanda Interna contrastó con la expansión de la Demanda Externa en los mercados extranjeros, donde las exportaciones (con una tasa de crecimiento de 8,8 anual acumulativa) volvieron a recuperar los niveles de años anteriores a la firma del Tratado Europeo, alentadas por las sucesivas devaluaciones de la peseta llevados a cabo durante 1993,

Beraz, barne-eskariak portaera makala izan zuen; kanpo--eskariak, aldiz, gorantz egin du atzerriko merkatuetan; hori dela eta, esportazioak (urteko % 8,8ko hazkunde-tasa pilatua) berriro itzuli dira Europako Ituna izenpetu aurreko urteetako mailetara. Horretan lagundu dute pezetaren balio-galtzeek (1993an behin baino gehiagotan); horien eraginez, egiazko trukeak jaitsi egin dira, eta ho-

**3. GRAFIKOA: BARNE-PRODUKTU GORDINAREN HAZKUNDEARI EGINDAKO EKARPENA. EUSKAL AE. 1990-1995 ETA 1985-1990 (%)**

GRAFICO 3: APORTACION AL CRECIMIENTO DEL PRODUCTO INTERIOR BRUTO. C. A. DE EUSKADI. 1990-1995 Y 1985-1990 (%)



que provocaron una disminución en el cambio efectivo muy atractivo para la venta en los mercados extranjeros, en gran parte a costa de las ventas en el mercado estatal, que cayeron un 2,5% anualmente.

Las Importaciones, dada la menor actividad industrial y el estancamiento del Consumo Final, alcanzaron un nivel de crecimiento del 0,8% de tasa acumulativa anual, inferior a las Exportaciones, satisfaciendo en mayor medida en los mercados extranjeros sus preferencias de compra. Con todo ello, el Saldo Comercial Exterior se sitúa con un superávit de 51.784 millones, lo que le supuso pasar de una aportación negativa en el PIB del -4,5% durante el período 1985-1990, a una aportación positiva del +1,6%, gracias a la evolución observada por el Saldo con el Extranjero, por las razones ya comentadas de aprovechamiento de las devaluaciones de la peseta acontecidas en el período.

De muy diferente forma se comporta el Saldo con el Resto del Estado, que mantiene una posición deficitaria de -134.325 millones de pesetas con una contribución negativa al PIB -3,1% frente a la contribución positiva del período 1985-1990 (0,6%), especialmente debido al no encontrar los bienes industriales tan atractivo este mercado como en la etapa anterior, reduciendo así el saldo superavitario que venía manteniendo tradicionalmente. Por otra parte, aunque el sector Servicios mantiene una situación deficitaria en relación al Resto del Estado, ésta experimenta una notable mejoría dado el desarrollo interior que prosiguen ciertos sectores de servicios, en especial el Sector de Servicios a empresas.

Desde el punto de vista de la Oferta, todos los grandes sectores económicos, a excepción de la Agricultura, se hicieron eco de la fase descendente del ciclo que atravesó la economía vasca en este período, y que se mantuvo muy lejos de la expansión alcanzada en la etapa anterior. En este marco, la Industria y la Construcción fueron los sectores de mejor comportamiento al crecer a tasas reales acumulativas anuales de 2,1% y 2,8%, respectivamente. En el caso de la Industria esta evolución se debió fundamentalmente al despegue observado en los últimos años del quinquenio, gracias al impulso exportador y a la recuperación de los procesos inversores.

Los sectores industriales que mayor empuje tuvieron en este período fueron: el Material eléctrico y electrónico (8,6%), la Industria no Metálica (5,6%), arrastrada por la evolución de la Construcción, Caucho y plásticos (4,1%) y Alimentación (6,3%), por el buen comportamiento de las Bebidas, Tabaco y Otras alimenticias.

La Construcción, a pesar del bache de 1993, es el sector que muestra un comportamiento más dinámico, al crecer 2,8% anualmente. Los dos grandes apartados de este sector, Edificación y Obra Pública, han sabido complementarse, mientras la Edificación atravesaba momentos difíciles por la falta de expectativas de las familias ante el futuro, la Obra Pública mantuvo un aceptable nivel de gasto en infraestructuras que se redujo cuando la primera fue recuperando su actividad.

El sector de Servicios se caracteriza en este periodo por una evolución muy moderada, 1,6% tasa acumulativa anual, lógicamente marcada en parte por el frenazo en el Consumo Privado de las familias. Así pues, sectores destinados en su mayor parte a satisfacer bienes de consumo, tales como el Comercio, Hostelería, Transporte, Servicios personales y Servicio doméstico sufren crecimientos negativos en términos reales. No obstante,

rrek oso erakargarri bihurtu du atzerriko merkatuetan saltzea; Estatuko merkatuan, aldiz, behera egin dute salmentek, urtean % 2,5 jaitsi baitira.

Bestalde, kontuan izanik industri jarduera gutxitu egin dela eta azken kontsumoa egonkortu egin dela, % 0,8ko mailaraino iritsi dira inportazioak, urteko tasa pilatuan, hau da, esportazioen azpitik geratu dira, zeren erosketa-lehentasunak hobeto asebete baitira atzerriko merkatuetan. Horren guztiaren eraginez, kanpoko merkataritza-saldoak 51.784 milioiko superabita lortu du; beraz, BPGan ekarpen negatiboa egitetik ekarpen positiboa egitera igaro da: 1985-1990 aldian, % -4,5; azken aldi horretan, berriz, % +1,6, atzerriarekiko saldoan izan duen bilakaerari esker, eta aldi horretan pezetak izan dituen balio-galtzeak ondo aprobetxatu direlako.

Estatuko enparatuarekiko saldoak, bestalde, portaera guztiz desberdina izan du, zeren -134.325 milioi pezetako defizita izan baitu, eta BPGari ekarpen negatiboa egin baitio (% -3,1); 1985-1990 aldiko ekarpena, aldiz, positiboa izan zen (% 0,6), batez ere, aurreko aldian ez bezala, industriako ondasunek ez dutelako oso erakargarri aurkitu merkatu hori, eta, beraz, orain arteko superabit-saldo hori murriztu egin delako. Bestalde, nahiz eta zerbitzu-sektoreak defizita izan duen Estatuko enparatuaren aldean, defizit hori asko hobetu da, zeren zenbait sektorek (batez ere, enpresentzako zerbitzuak sektoreak) barneko garapen-maila handia izan baitute.

Eskaintzari dagokionez, ekonomi sektore nagusi guztietan, nekazaritzan izan ezik, nabarmendu da ekonomiak aldi horretan jasan duen zikloaren beheranzko fasea, zeina oso urrun geratu baita aurreko aldiko zuzperralditik. Ildo horretatik, industriak eta eraikuntzak izan dute portaerarik onena, hurrenez hurren, % 2,1eko eta % 2,8ko urteko benetako tasa pilatuetara hazi dira. Industriaren kasuan, bilakaera hori, batez ere, bosturtekoko azken urteetan izandako igoerak eragin zuen, esportazioen bultzadari eta inbertsio-prozesuen zuzpertzeari esker.

Hona hemen aldi horretan gehien hazi diren industri sektoreak: material elektrikoa eta elektronikoa (% 8,6), industria ez-metalezkoa (% 5,6) –eraikuntzaren bilakaerari esker–, kautxua eta plastikoak (% 4,1) eta elikagai-industriak (% 6,3) –edariak, tabakoa eta bestelako elikagai-industriak sektoreei esker–.

Eraikuntzak izan du portaerarik dinamikoena, zeren urtean % 2,8 hazi baita, nahiz eta 1993an makalaldi bat izan zuen. Sektore horretako bi atal nagusiek (eraikinak eta herri-lanak) elkar osatzen asmatu dute: eraikinak atalak une zailak pasa zituen hasieran, familiek ez zutelako itxaropen handirik; herri-lanak, aldiz, maila nahiko onean iraun zuten, baina, eraikinak atalaren jarduera zuzpertzen hasi zenean, azpiegituretako gastua murriztu egin zen.

Zerbitzu-sektoreak, aldi horretan bertan, bilakaera oso neurritsua izan du (urteko % 1,6ko tasa pilatua); logikoa denez, neurri batean, familien kontsumo pribatuaren geldialdiak eragina izan du horretan. Beraz, gehienbat kontsumo-ondasunak estaltzera bideratutako sektoreek –hala nola merkataritza, ostalaritza, garraioa, gizabanakoentzako zerbitzuak eta etxeko zerbitzua– hazkunde negatiboak izan dituzte, benetako kopuruetan. Beste zer-

**4. GRAFIKOA: BALIO ERANTSI GORDINAREN URTEKO TASA PILATUA KOPURU FINKOETAN. 1990-1995. EUSKAL AE (%)**

GRAFICO 4: TASA ANUAL ACUMULATIVA DEL VALOR AÑADIDO BRUTO EN TERMINOS CONSTANTES. 1990-1995. C. A. DE EUSKADI (%)




existe otro tipo de servicios que despegaron en la segunda parte de la década anterior, y que continúan en esta línea de progresión ascendente, éste es el caso de los sectores de Seguros y Servicios a empresas, que se van consolidando en el entramado económico vasco, incluso en los intercambios con los mercados más próximos como el Resto del Estado.

Otros servicios de menor entidad económica pero que han tenido un buen comportamiento han sido los relacionados con las actividades asociativas, la regeneración de residuos industriales y saneamiento público, influido supuestamente por la aplicación de la normativa comunitaria al respecto.

La Administración Pública, a pesar de los recortes presupuestarios del período, crece por encima de la media del resto de los servicios (2,7%), aunque muy lejos de las cuotas alcanzadas anteriormente.

El sector Primario es el único que contrasta con la evolución del período 1985-1990, al crecer positivamente con una tasa acumulativa anual de 0,7%, propiciado por el comportamiento de la Agricultura y Silvicultura, ya que los sectores Ganadería y Pesca han descendido incluso en términos nominales, afectados por la reducción en las cuotas comunitarias.

Uno de los aspectos más positivos del periodo han sido las mejoras en productividad manifestadas en los cuatro grandes sectores económicos, que superan los conse-

bitzu batzuk, aldiz, zuzpertu egin dira, aurreko hamarkadako bigarren zatia, eta oraindik ere goranzko joera horri eusten diote, hala nola aseguruak eta enpresentzako zerbitzuak sektoreak; izan ere, sektore horiek sendotzen ari dira EAEko ekonomi egituran, bai eta hurbileneko merkatuetan ere (esaterako, estatuaren enparatuan).

Beste zerbitzu batzuek ere, ekonomi garrantzi txikiagoa izan arren, portaera ona izan dute; esaterako, elkarte-jarduerekin lotutakoek, industri hondakinak onera ekartzea eta herri-saneamenduan, uste denez, Europako Erkidegoak horri buruz dituen arauak ezartzearen eraginez.

Herri-administrazioa ere zerbitzuen batez bestekoaren gainetik hazi da (% 2,7), nahiz eta aldi horretan aurrekontuak murriztu diren; dena dela, ez ditu iritsi aurretik lortutako mailak.

Lehen sektorea da 1985-1990 aldiko bilakaerarekin bat ez datorren sektore bakarra, hazkunde positiboa izan baitu (urteko % 0,7ko tasa pilatua), batez ere, nekazaritzaren eta basogintzaren portaera onari esker, zeren abeltzaintzak eta arrantzak behera egin baitute (kopuru nominaletan ere bai), Europako Erkidegoak kuotak murriztu dizkielako.

Aldi horretako alderdirik onenetakoa honako hau izan da: lau ekonomi sektore nagusietan, hobetu egin da produkzio-ahalmena, eta aurreko aldian lortutakoen gainetik ge-

guidos en la etapa anterior. Los procesos inversores y sobre todo el ajuste de plantillas son los factores que han influido en este sentido.

La Industria dada la reducción en el empleo ocupado, 38.296 puestos de trabajo, ha sido el sector que más ha avanzado en este terreno, 5,9% anualmente, destacando los sectores: Maquinaria eléctrica, Caucho y plásticos, Química, Industria no metálica, Alimentación, Minerales metálicos y no metálicos, Extracción y refino de Petróleo, y Cuero y calzado.

La Agricultura, como ya venía siendo habitual en la etapa anterior, consigue las mejoras de productividad (2,3%) de tasa real anual a costa de la destrucción de 1.907 empleos. De forma muy diferente, el sector Construcción logra los aumentos en su productividad (2,5%) compaginándolos con la creación de puestos de trabajo.

Por último, el sector Servicios también consigue avances, aunque más moderados en este terreno, que se compaginan con la generación de empleos, en contraposición a la década anterior donde la expansión supuso retrocesos en el campo de la productividad. Lo cual nos indica que el crecimiento que ha observado el sector ha tenido un carácter más eficiente que en etapas anteriores. Los sectores de servicios con mejor evolución en este sentido  han sido: el sector Seguros donde ha incidido fundamentalmente la expansión del sector y el ritmo ajuste de plantillas llevado a cabo, Otros Servicios, que consolida la tendencia del pasado quinquenio y la Administración Pública, que reconduce el explosivo crecimiento de la etapa anterior.

ratu dira. Inbertsio-prozesuak eta, batez ere, langile-taldeen doitzeak izan dute eragina hobekuntza horretan.

Industria, kontuan izanik landun-kopurua murriztu egin dela (38.296 lanpostu), izan da arlo horretan gehien aurreratu den sektorea (% 5,9 urtean), eta honako sektore hauek nabarmendu dira: makineria elektrikoa, kautxua eta plastikoak, kimika, ez-metalezko industria, elikagai--industriak, mea metalezkoak eta ez-metalezkoak, petrolioa ateratzea eta fintzea, eta larrua eta oinetakoak.

Nekazaritzan ere –aurreko aldian gertatzen zen bezala–, hobetu egin da urteko benetako tasaren produkzio-ahalmena (% 2,3), nahiz eta 1.907 enplegu galdu diren. Eraikuntza-sektorean, aldiz, produkzio-ahalmena igotzeaz gain (% 2,5), lanpostuak ere sortu dira, aldi berean.

Azkenik, zerbitzu-sektoreak ere gorakadak lortu ditu; gorakada horiek, dena dela, neurritsuagoak izan dira, eta, aldi berean, lanpostuak ere sortu dira; aurreko hamarkadan, aldiz, ez zen horrelakorik gertatu, eta, nahiz eta hazkundea egon, produkzio-ahalmenak behera egin zuen. Horrek erakusten duenez, sektore horretan izan den hazkundea aurreko aldietakoa baino eraginkorragoa izan da. Hona hemen, zerbitzuetan, bilakaera onena izan duten sektoreak: aseguru-sektorea (sektorearen hazkundeak eta lan-taldeen doitze-erritmoak hor izan dute eragin handiena), bestelako zerbitzuak (hor aurreko bosturtekoko joera sendotu da) eta herri-administrazioa (hor aurreko aldiko hazkunde bizkorra bideratu da).

**5. GRAFIKOA: PRODUKZIO-AHALMENA KOPURU FINKOETAN. 1990-1995. EUSKAL AE. (Balio erantsia landuneko)**

GRAFICO 5: PRODUCTIVIDAD EN TERMINOS CONSTANTES. 1990-1995. C.A. DE EUSKADI. (Valor Añadido por ocupado)



## 4. ORIGEN Y EMPLEO DE LOS RECURSOS

SE CONSOLIDA LA SUSTITUCIÓN DE RECURSOS EXTERIORES POR RECURSOS PROPIOS.

El período 1990-1995 consolida el fenómeno evidenciado en el quinquenio anterior de sustitución de recursos exteriores (Importaciones) por recursos propios (Producción Interna) que representan un 23,7%([1]) y un 76,3% respectivamente, correspondiendo principalmente esta sustitución a los recursos procedentes del Resto del Estado, ya que los recursos procedentes del Extranjero ganan peso en el total de recursos de la economía vasca, como consecuencia de la cada vez mayor penetración de los productos extranjeros en los mercados vascos.

Por grandes sectores, aunque la Industria manifiesta la tendencia general comentada, principalmente en cuanto a la sustitución de importaciones del mercado estatal por importaciones del mercado extranjero, es en el sector Servicios donde la sustitución de importaciones del Resto del Estado por producción interna es más manifiesta. Este comportamiento evidencia la implantación que va adquiriendo el sector terciario en la economía vasca.

## 4. BALIABIDEEN NONDIKOA ETA ZERTARAKOA

KANPOKO BALIABIDEEN ORDEZ, BERTAKO GERO ETA BALIABIDE GEHIAGO ERABILTZEN DIRA.

1990-1995 aldian sendotu egin da aurreko bosturtekoan agerian geratu zen gertakari bat:. kanpoko baliabideen (inportazioen) ordez, bertako baliabideak (barneko produkzioa) erabiltzen da; lehenak % 23,7([1]) hartzen du, eta bigarrenak, % 76,3, hurrenez hurren. Ordezkatze hori, batez ere, estatuaren enparatutiko baliabideei dagokie, zeren atzerritiko baliabideek pisua irabazi baitute, EAEko ekonomiaren baliabideen guztizkoan, atzerriko produktuak gero eta gehiago ari direlako sartzen gure merkatuetan.

Sektore nagusien arabera, nahiz eta industriak arestian aipatu dugun joera izan –batez ere, estatuko merkatutiko inportazioen ordez, atzerriko merkatutiko inportazioak sartu direlako–, ordezkatze handiena zerbitzuen sektorean izan da, non nabarmenagoa baita estatutiko inportazioen ordez, barneko produkzioak erabiltzen direla. Portaera horrek erakusten duenez, hirugarren sektoreak gero eta ezarpen handigoa du, EAEko ekonomian.

**6. GRAFIKOA: GUZTIZKO BALIABIDEEN NONDIKOAREN EGITURA UNEKO PREZIOETAN. 1990-1995. EUSKAL AE (%)**

GRAFICO 6: ESTRUCTURA DEL ORIGEN DE LOS RECURSOS TOTALES A PRECIOS CORRIENTES. 1990-1995. C. A. DE EUSKADI (%)




En el análisis de la estructura de los empleos, se denota una intensificación de los empleos dirigidos a alimentar el propio entramado económico-productivo, lo que implica un crecimiento de casi cuatro puntos en los Outputs Intermedios, representando un 39,2% sobre el total de los empleos. La debilidad mostrada por la Demanda Interna hace perder peso tanto al Consumo Privado como a la Formación Bruta de Capital, que pasan a representar un 24,2% y un 8%, respectivamente.

([1]) Incluido el IVA que grava los productos.

Enpleguek nolako egitura duten aztertzen badugu, ikusiko dugu ekonomia eta produkzio-arloa hornitzeko enpleguak gehitu egin direla; horren eraginez, bitarteko outputek ia lau puntuko hazkundea izan dute, eta % 39,2 hartu dute, enpleguen guztizkoaren aldean. Barne-eskaria, aldiz, motel agertu da, eta, ondorioz, kontsumo pribatuak zein kapital-eraketa gordinak pisua galdu dute, eta orain % 24,2 eta % 8 hartzen dute, hurrenez hurren.

([1]) Produktuak zamapetzen dituen BEZa barne.

El Consumo Público gana peso en los empleos totales, llegando a representar un 4,7%, muy al contrario que las Exportaciones Totales que lo pierden, debido fundamentalmente al aumento en la producción dirigida a satisfacer la Demanda Interna. De igual forma, se observa un desvío de las Exportaciones hacia el mercado extranjero facilitado por las devaluaciones de la peseta.

